

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2020ko otsailaren 3an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2020ko urtarrilaren 29ko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea.

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Prozedura irekiaz, ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOAN BIOMASAN OINARRITUTAKO ENERGIA TERMIKOA SORTZEKO SISTEMA ETA BERO-SAREA JARTZEKO BIDERAGARRITASUN TEKNIKOAREN AZTERKETA EGITEKO kontratua (DIRTEC/19/003)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
2. *Prozedura irekiaz, HAUTAKETA PROZESUETARAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAK ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN kontratua (ESG/19/005)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
3. *Prozedura irekiaz, ENERGIAREN EUSKAL ITUNA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN kontratua (EEP/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
4. *Prozedura irekiaz, ENERGIAREN EUSKAL ITUNAREN HERRITARREN KOMUNIKAZIO ETA PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAREN DISEINUA ETA GARAPENA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN kontratua (COM/19/002)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
5. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
 - *ERG/20/001. LIDAR teknologiaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko kartografia geologikoa berrikustea, eguneratzea eta egitea.*
6. *Kontratu txikien zerrenda.*
7. *Beste gai batzuk.*
8. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Prozedura irekiaz, ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOAN BIOMASAN OINARRITUTAKO ENERGIA TERMIKOA SORTZEKO SISTEMA ETA BERO-SAREA JARTZEKO BIDERAGARRITASUN TEKNIKOAREN AZTERKETA EGITEKO kontratua (DIRTEC/19/003)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Sergio López jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta Iñaki Bóveda jaunak, Energia Berriztagarrien eta Baliabideen Ustiapenaren Ataleko arduradun moduan, berretsi du.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, batzordera bertaratu da López jauna, Kontratuaren Arduraduna den aldetik.

López jaunak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die eta baita ere bertan azaltzen den esleipen proposamena.

Ondoren, eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, eta Balorazio Txostenak SPKLaren baldintza formalak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Batzordeko kideek aho batez erabaki dute Kontratuaren Arduradunak egindako Balorazio Txostenean azaltzen den ARABAKO PARKE TEKNOLOGIKOAN BIOMASAN OINARRITUTAKO ENERGIA TERMIKOA SORTZEKO SISTEMA ETA BERO-SAREA JARTZEKO BIDERAGARRITASUN TEKNIKOAREN AZTERKETA EGITEKO (DIRTEC/19/003) kontratuaren esleipen proposamena Kontratazio organoari helaraztea, honako baldintzetan:

<<Aurkeztu ziren eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, ENERLAN SOLUTIONS, S.L. enpresaren eskaintza prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da, 14.960,00 €engatik, eta bere eskaintza aurkeztutako baldintzetan.>>

2. **Prozedura irekiaz, HAUTAKETA PROZESUETARAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAK ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN kontratua (ESG/19/005)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Carlos Aguirre jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta Giza Baliabide eta Zerbitzu orokorren Zuzendari moduan.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, batzordera bertaratu da Aguirre jauna, Kontratuaren Arduraduna den aldetik.

Aguirre jaunak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die eta baita ere bertan azaltzen den esleipen proposamena.

Ondoren, eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, eta Balorazio Txostenak SPKLaren baldintza formalak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Batzordeko kideek aho batez erabaki dute Kontratuaren Arduradunak egindako Balorazio Txostenean azaltzen den HAUTAKETA PROZESUETARAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAK ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN (ESG/19/005)

kontratuaren esleipen proposamena Kontratazio organoari helaraztea, honako baldintzetan:

<<Aurkeztu ziren eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, Campo y Ochandiano, S.L. enpresaren eskaintza prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da, bere eskaintzan aurkeztutako baldintzetan.>>

3. Prozedura irekiaz, ENERGIAREN EUSKAL ITUNA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN kontratua (EEP/19/001)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Txetxu Saenz de Ormijana jaunak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta Azterlanak eta Planifikazioko Zuzendari moduan, berretsi du.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, batzordera bertaratu da Saenz de Ormijana jauna, Kontratuaren Arduraduna den aldetik.

Saenz de Ormijana jaunak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die eta baita ere bertan azaltzen den esleipen proposamena.

Ondoren, eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, eta Balorazio Txostenak SPKLaren baldintza formalak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Batzordeko kideek aho batez erabaki dute Kontratuaren Arduradunak egindako Balorazio Txostenean azaltzen den ENERGIAREN EUSKAL ITUNA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN (EEP/19/001) kontratuaren esleipen proposamena Kontratazio organoari helaraztea, honako baldintzetan:

<<Aurkeztu ziren eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, UTE PACTO VASCO DE LA ENERGIA enpresaren eskaintza prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da, 420.000 €engatik, eta bere eskaintza aurkeztutako baldintzetan.>>

4. Prozedura irekiaz, ENERGIAREN EUSKAL ITUNAREN HERRITARREN KOMUNIKAZIO ETA PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAREN DISEINUA ETA GARAPENA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN kontratua (COM/19/002)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Arantzazu Zugasti andreak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta Komunikazio eta Kanpo Harremanetako Ataleko Zuzendari moduan.

Gai-zerrendan zegoen kontu hori jorratzeko, batzordera bertaratu da Zugasti andrea, Kontratuaren Arduraduna den aldetik.

Zugasti andreak Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu die eta baita ere bertan azaltzen den esleipen proposamena.

Ondoren, eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, eta Balorazio Txostenak SPKLaren baldintza formalak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Batzordeko kideek aho batez erabaki dute Kontratuaren Arduradunak egindako Balorazio Txostenean azaltzen den ENERGIAREN EUSKAL ITUNAREN HERRITARREN KOMUNIKAZIO ETA PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAREN DISEINUA ETA GARAPENA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN (COM/19/002) kontratuaren esleipen proposamena Kontratazio organoari helaraztea, honako baldintzetan:

<<Aurkeztu ziren eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, UTE SAITEC-IBATUZ enpresaren eskaintza prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da, 116.200 €engatik, eta bere eskaintza aurkeztutako baldintzetan.>>

5. Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *ERG/20/001. LIDAR teknologiaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko kartografia geologikoa berrikustea, eguneratzea eta egitearen kontratua.*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLAN aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

6. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei EEEK esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

7. Beste gai batzuk.

Batzordekideei honako gaiak buruz berri ematen zaie:

i) Zerbitzu-kontratuak ikuskatzeko jakinarazpena. Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia - Zerbitzu-kontratuen jardunbide egokien instrukzioa.

Funtzio Publikoko sailburuordeak 2019ko abenduaren 19an emandako 33/2019 Ebazpenaren berri eman zaie batzordeko kideei. Ebazpen horren bidez, EAEko 2018. urteko sektore publiko osoko zerbitzu-kontratuei dagokien bosgarren ikuskapen-plana onartzen da, eta haren helburua da, batez ere, egiaztatzea betetzen direla Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2014ko apirilaren 29ko Erabakiaren bidez onartutako zerbitzuen kontratazioko jardunbide egokien jarraibideak.

Ebazpen horretan berariaz adierazten da 2018ko ikuskapenak barne hartzen dituela Administrazio Instituzionaleko erakunde guztiak, zuzenbide pribatuaren

pean dauden erakunde instituzionalak barne, eta, beraz, Kontratazio Batzordeko kideei jakinarazten zaie ikuskapena EEERi eta EEE Taldea osatzen duten sozietate publikoei aplikatu behar zaiela.

Horri dagokionez, batzordekideei jakinarazten zaie 2018ko Ikuskaritzarako honako kontratazio-espeditente hauek hautatu direla:

Energiaren Euskal Erakundea – EEE:

- EEP/17/001: EUEI-17 industria alorrean energiaren erabileraren inguruko ikerlana egiteko laguntza teknikoko zerbitzuak.
- DIRTEC/18/006: Euskadiko 2. PTS eolikoa tramitatzeko hasierari ekiteko dokumentuak prestatzeko kontratua.

Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A.:

- SHE/17/007: Hidrokarburoen (C1-C5) eta Helio (He) ihes konbinatuen inguruko kanpaina geokimiko bat egitea.
- SHE/18/002: Gas naturalaren merkaturatzeari lotutako prozesuen inguruan aholkularitza zerbitzuak eta kanpora ateratzea.

Azkenik, adierazten da EEEko zerbitzu juridikoek espedienteetan agertzen den dokumentazioa bidaliko diotela Zerbitzuen Ikuskaritza Orokorrari.

ii) EEE Taldearen 2019ko kontratu erreserbatuei buruzko datuak. Gobernu Kontseiluaren Akordioa - Laneratzeko enpresentzat eta enplegu-zentro berezientzat gordetako kontratuak.

Batzordeko kideei azaltzen zaie Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen urriaren 25eko 1/2019 Zirkularra, Gobernu Kontseiluaren 2018ko martxoaren 13ko Erabakia nola bete behar den azaltzen duena, erreserbatutako kontratuei buruzko jarraibideak onartzen dituena.

Batzordeko kideei gogorarazten zaie Gobernu Kontseiluaren Erabaki horrek ezartzen duela erreserbatu gisa izapidetu beharko direla gizarte-ekimeneko laneratzeko-enpresa eta enplegu-zentro berezientzat, gutxienez, aurreko ekitaldian akordioan adierazitako CPV kodeekin lizitatutako kontratuen lizitazioko oinarritzko aurrekontuen zenbateko osoaren% 5, 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen VI. eranskinean jasotakoak baino ez direnak. Era berean, ezartzen da urteko memoria bat bidali beharko dela honako datuak jasoz: erreserbatu daitezkeen kontratuen datuak, benetan erreserbatutako kontratuen datuak eta, hala badagokio, %5era ez iristeko arrazoiak.


Horri dagokionez, zerbitzu juridikoek egindako urteko memoriaren zirriborroa aztertu da, eta Kontratazio Batzordeko kideek ontzat eman dute, eta Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzara bidaltzea proposatu dute.

iii) 2019ko kontratazio txostena: Dokumentua EEEko zuzendari guztiei helaraztea proposatzen da, eta bilera espezifiko baterako deia egitea, txostena sakon azaltzeko.


8. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Enrique Monasterio Beñaran jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria